

DBH_1_Ikasgaia_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea | Andoni Salegi; Oihane Txokarro | Maila | 1.DBH | Ikasturtea | 2021-22

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Hautazko irakasgaia da. Astean bi saioko irakasgaia, Plastika (1.taldea), Informatika (1.taldea), Bolumen (2.taldea) eta Irudi gelan (2.taldea) landuko dena.

[Kontingentzia Plana](#)

[Arreta ez-Presentzialaren Plana.](#)

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.		x		x			x	x	x	
3) Gaitasun digitala.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
4) Ikasten ikastea	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
6) Ekimena eta ekintzaitza.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Utzi dagokiona:

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

DBH CURRICULUMA

Edukiak hiru bloke nagusietan banatzen dira: Ilustrazioa, bolumena eta animazioa. Lehenengo blokean, teknika artistiko ezberdinak lantzen dira, konposizioarekin batera, amaierako proiektuan borobiltzeko. Ikasleek sortuko duten testu batetik abiatuz ilustrazio bat sortu beharko dute.

Bigarren blokean, animaziozko zinemaren inguruko historia, teknika eta adibideetatik abiatuz, ikasleek animazio bat garatuko dute. Horretarako, teknika honetako prozesua pausoz pauso jarraituko dute eta amaieran, bideoaren edizioa burutuko dute windows movie maker programaren bitartez.

Hirugarren blokean, giza gorputzaren proportzioen azterketatik abiatuz, buztinezko modelatu bat egingo dute. Ikasle bakoitzak bere autoerretratu egin beharko du.

DBH1 Iturrama Berdea proiektua landuko da animazioaren proiektuaren bidez.

DBH Skolae-ko jarduerak: "Norberaren edertasuna" jarduera abiapuntutzat hartuz, 3. ebaluazioan gorputzaren irudikapena landuko da ariketa ezberdinen bidez.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

DBH CURRICULUMA

Ebaluazio irizpide prozedimentalak:

Jarrerazko ebaluazio irizpideak: materiala zaindu beharko da eta gela, nahiz erabilitako tresna guztiak, txukun eta bilduta utzi. Zentroko arauak bete beharko dira.

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
30	ILUSTRAZIOA	21	ANIMAZIOA	14	BOLUMENA
	Teknika ezberdinak, akuarela, collagea, argizariak, tinta, koloretako arkatzak, teknika mistoak		Animaziozko zinema (diseinua eta praktika) Irudia mugimenduan, mugimenduaren irudikapena. Sistema analogikoak eta digitalak. Konposizioa, plano eta sekuentzia. Plano motak eta ikuspuntuak. Flipbook.		Hiru dimentsioko proiektu bat egiteko prestaketa, Erreferentziak bilatu. Bozetoak eta planoak egin.
	Konposizioa: Oinarrizko elementuak: puntua, lerroa, plano eta ehundura. Konposizio motak Konposizioa		Gidoia. Story board. Produzioaren planifikazioa: denboralizioa, kokalekua, jantziak, atrezzo, etb. Errealizazioa. Casting. Filmazio plana. Lan taldea.		Modelatua: Hiru dimentsioak lantzen. Hiru dimentsioko objektua edo maketa eraikitzea.
	Testu bat ilustratzea: Ilustratzaile desberdinen azterketa eta aurretik landutako tekniken aplikazioa.		Stop motion: kokalekua muntatu eta argazkiak egin.		
	Bestiariora		Montaia, edizioa. Windows Movie Maker softwarea.		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

1. Irakasleak gaia azalduko du eta adibide praktikoak ikusiko ditugu. Blogean hainbat material baita egindako lanak ikusgai egonen dira.
2. Gaia barnerratzeko ariketa txikiak egingen dituzu. Ondoren proiektua garatuko da.
3. Lanak irakasleak zuzenduko ditu. Modu honetan egindako akatsak baita ongi egindakoak baloratzeko aukera izanen duzu.
4. Taldekatzeak IK/KI metodologiaren arabera egingen dira (launaka).

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Mintegiko programazio didaktikoan ikusgai. BON

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluatzeko tresnak:

- 1) Ebaluaketa bakoitzean egindako lan praktikoak.
- 2) Proiektuak.
- 3) Jarrera.

Jarduera bakoitza aurkeztuko zaizu, argi izan dezazun helburu dituen, nola egin, zein material eta zenbat denbora duzun bukatzeko. Irakasleak entrega datak jarriko ditu. Egun bat berandu entregatzeak puntu baten jaitziera ekarriko du, atzerapena handiagoa bada berreskurapen trataera jasoko du; gehienez 5eko kalifikazioa izanen du.

Jarduerak berreskuratzeko aukera izango duzu 15 egunetako epearen barruan. Ikasgaia

gainditzeko, landutako jarduera guztiak aurkeztuak eta gaindituak izan behar dute. Jarrera kontuan hartuko dugu ebaluaketako kalifikazioan: erakutsitako interesa, ahalegintze maila, talde lanetako partehartzea, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, materiala zaintzea,... Lanerako beharko duzun materiala egunero ekartzea ezinbestekoa da, behin eta berriz ahazteak interes faltaren erakusgai hartzen dira.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

-Ebaluaketako nota eskatutako lane^on eta jarreraren batazbestekoa izango da. Gainditu gabe dauden lanak gutxieneko 3,5 izan beharko dute batazbestekoa egiteko. -Ekaineko nota hiru ebaluaketen batazbestekoa izango da. Ebaluazio bat suspendituz gero, batazbestekoa egiteko gutxieneko 4 lortu behar da. Bi suspendituz gero nahikotasun proba egin beharko da.

Borobiltze-kasu guztietan borobiltze matematiko arrunta erabiliko da, hau da, lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio.

KALIFKAZIOAEN BALIO PORTZENTUALA

Lan praktikoak %20 Proiektu a %60 Jarrera %20

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazioa gainditzeko: Lanak: akatsak zuzenduta berregin eta epe baten buruan eman.

Gehienez 5eko nota lortu ahal da. Proiektua: gainditu gabe baduzu, hurrengo ebaluazioan edo nahikotasunean gainditzeko aukera izango duzu. Gehienez 5eko nota lortu ahal da.

-Ohiko deialdian ikasgaia gainditzeko, ikasturtean zehar egin diren lan guztiak aurkeztu behar dira. Azterketa Globala kurtsoan landutako gaien inguruan izanen da; berez, ez da azterketa izango, proiektuak bukatzeko epea ezarriko da eta salbuespenik ez badago ez da beharrezkoa azterketarik egitea. Ebaluazio bat suspenditurik izanez gero bakarrik ebaluazio hori berreskuratu beharko da, 2 baldin badira berreskurapen txosten bat eginen da.

-Ohiko deialdian gainditzen ez baduzu, Ohiz Kanpoko Azterketa egin beharko duzu. Honetan, azterketa egiteaz gain, irakasleak emandako errekupeartzeko ariketak eginda emanen dituzue.

-Ez ohiko deialdiko azken nota honela sortuko da: %70 kurtsoan egindako lanen nota eta %30 azterketaren nota. Gainditzeko bi atalak gainditu behar dira. -Ez ohiko deialdian nahitaezkoa da azterketara aurkeztea.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasgai honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik.